

emakumeen txokoa

2026KO UDAZKENA

Emakumeentzat eta LGTBIQ+ pertsonentzat Jabetze Eskolak
Gizonentzat Boteregabetze Eskolak
Zerbitzu eta Baliabide feministak



15 URTE
ZUEKIN

"Borokatua
izan da,
ez oparitua"

ZER DA EMAKUMEEN TXOKOA?

Azpeitiko Emakumeen Txokoa, mugimendu feministaren borrokari eta aldarriari esker, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ekipamendu publikoa da. Gune horrek babesleku seguru eta konfidentziala eskaintzeaz gain, jatorri, kultura eta ezaugarri guztietako emakumeak ahalduntzeko espazioa ere bada.

Parekidetasun erreala lortzeko ibilbide horretan, askotariko baliabideak eta aukerak eskaintzen ditu, emakumeei beren trebetasunak, ezagutzak eta laguntza-sareak indartzeko aukera ematen dietenak. Gainera, bizitza soziopolitikoan aktiboki parte-hartzea sustatzen du, beren ahotsak entzuten eta baloratzen diren ingurune bat sortuz. Halaber, indarkeria matxistari aurre egiteko lanean jarduten da, erreparazioarako funtsezkoak diren zerbitzuak eskainiz.

HARREMANETARAKO

Emakumeen Txokoa. Goiko kale, 12 behe.

943 15 70 55 | 688 751 000 | emakumetxokoa@azpeitia.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara
eta ostiraletan 9:00etatik 13:00etara.

Udako ordutegia (ekaina erdia eta uztaila):
astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

**emakumeen txokoa Parte hartuz,
denok irabazten dugu! Zatoz!**

JARRAI GAITZAZU



AzpeitikoEmakumeenTxokoa



@Etxokoa



@emakumetxokoa



Azpeitiko Emakumeen Txokoa

PARA LEER
EL TEXTO
EN OTROS
IDIOMAS,
MIRA AQUÍ





IKASTAROAK ETA TAILERRAK

JABETZE ESKOLAK

ZER DIRA JABETZE ESKOLAK?

Azpeitiko Jabetze eskolen helburua da emakumeei eta LGTBQ+ pertsonei beren buruaren eta beren bizitzaren jabe izateko tresnak eskaintzea. Maila pertsonalean eta kolektiboan indartzea bilatzen dute elkarrekin ikasiz eta errealitateari ikuspegi feministatik begiraturaz. Azken finean, herriko emakumeen eta genero disidenteen parte-hartze soziopolitikoak handitzen laguntzeko topagunea izan nahi dute.

Prestakuntza zabala eta parte-hartzailea eskaintzen da, herritarren proposamenetatik eta beharretatik zein parekidetasuna sustatzeko lan-ildoetatik abiatuta.

Zuri ere parte-hartzera animatzen zaitugu, elkarrekin jendarte parekideago eta bidezkoago baten bidea eraikitzeko!

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: Irailaren 21etik urriaren 2ra arte
Non izena eman?

- Azpeitiko Emakumeen Txokoa, zuzenean:
Goiko Kale 12, behea
- Telefono bidez: 943 15 70 55
- Whatsapp-ez edo Telegram bidez: 688 751 000
- Posta elektronikoz: emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko

Izen-emate orria bete behar da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoa eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- 1. Plazak mugatuak dira,** eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenek eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurretik parte hartu ez dutenek.
- 2. Taldeak antolatzeko,** behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten pertsona guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
3. Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, justifikatutako ez-bertaratzea denean.
4. Haurtzaindegiz-zerbitzua eskainiko da gutxienez 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurretik, izena ematerakoan adierazi.

EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLAK

1. TWERK ("BOOTY DANCE") IKASTAROA

Mendeetan zehar emakumeon gorputzak, uteroak eta aldakak atrofiatu dituen gizarte gaixo batek sortutako gaitzak pairatzen ditugu oraindik. Gorputzetik osotasunez eta zintzotasunez jarduteko behar horretatik sortzen dan mugitzeko proposamen hau. Gorputz zapalduen, estigmatizatuen, epaituen, zaurituen, desbalorizatuen, ezezagunen eta berezko gaitasun eta indarretik deskonektatuen sendabite eta askapen gisa hain zuzen ere.



Urriak 16, azaroak 20 eta
abenduak 19



Euskara



Ostiralak, 17:00-21:00
Larunbatean 10:30-14:30



16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Ikerne Mendieta

2. ETXEKO KONPONKETA TAILERRA

Ikastaro honen helburua ahalduz pertsonala eta kolektiboa indartzea da, etxeko tresnen eta konponketen ikaskuntza praktikoaren bidez. Historikoki emakume asko esparru horietatik urrundu dituzten mugak eta beldurrak identifikatu eta gainditzeko lan egingo dugu, konfiantza eta autonomia indartuko duten estrategiak garatuz. Zuzeneko esperientziatik abiatuta, gai gairela sentituko dugu, etxeko rolen banaketa tradizionala zalantzan jartzen dugun bitartean.



Urriak 7tik azaroak 4ra



Euskara



Asteazkenak, 17:00-19:30



17€ Azpeitian erroldatutakoentzat
21€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Amaia Saenz

3. MOTXILA: DARAMAGUNARI BEGIRATU, NAIZENA ULERTU ETA ZER NAHI DUDAN AUKERATZEKO BIDAIA

Denok dugu gure motxila. Bertan gordetzen ditugu bizipenak, ikaskuntzak, harremanak, zauriak, indarguneak eta gure istorioaren zati diren gauza asko. Tailer honetan gure motxila ireki eta barruan dagoenari begiratzeko espazio bat sortuko dugu: nondik gatozen ulertzeko, baliagarria izan dena aitortzeko eta hemendik aurrera zer nahi dugun aukeratzeko.

Geure burua hobeto ezagutzen dugunean, gure beharrak eta mugak ere argiago ikusten hasten gara. Mugak ez dira inposatzen diren hormak; barrutik jaiotzen diren zaintza eta errespetu adierazpenak baizik.

Norberearekin eta beste emakumeekin partekatzeko, hausnartzeko eta hazteko bidaia bat.



Urriak 13tik azaroak 17ra



Euskara



Astearteak, 18:00-20:00



16,5€ Azpeitian erroldatutakoentzat
20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Itxaso Beristain

4. IRRINTZI TAILERRA: IRRINTZIAREN GERTURAPEN SONOROA (ERREBALEKO FESTA BATZORDEAREKIN ELKARLANEAN)

Tailerra irrintziaren soinura praktikoki hurbiltzean datza. Horretarako, hainbat praktika garatzen dira: kontzentrazioa, beroketa eta ahots-praktikak besteak beste. Amaieran, mokadutxoia egongo da ondorioak elkarbanatzeko.



Urriak 17



Euskara



Larunbata, 11:00-12:30



Doan



Iaiaia Irrintzi Elkartea



EMAKUMEENTZAKO ETA LGTBIQ+ PERTSONENTZAKO JABETZE ESKOLAK



5. DRAG TAILERRA: GENERO ADIERAZPEN ARTISTIKORA HURBILKETA

Drag mundua eta bere historia ezagutuko dugu: non kokatzen den genero rolekiko, nondik datorren genero adierazpenaren arte hau eta gaur egun duen ikusgarritasuna eta errepresentazioa azalduko da. Drag makillajea zer-nolakoa den ezagutuko dugu eta drag makillaje teknikak irakatsiko dira saio praktikoen bitartez. Askatasunez eta berdintasunez drag mundura hurbilduko gara.



urriak 8, 22 eta azaroak 5



Euskara



Ostegunak, 17:00-19:00



8€ Azpeitian erroldatutakoentzat

10€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Beñat Zubillaga



6. PODCAST IKASTAROA (KULTURAZ KOOPERATIBAREKIN ELKARLANEAN)

Kolektiboan podcastak sortzera bideratutako ikastaroa izango da. Gidoiak idatzi, mikrofono aurrean hitz egin, teknika kontrolatu eta amaierako edizio lanak nola egiten diren ikasiko dugu. Jolasa eta esperimentazioa oinarri, ahotsezko komunikazioa lantzea da asmoa; sormenari, umoreari, lotsari, soinuari zein isiltasunari lekua eginez.

Ez da inongo ezagutza berezirik behar ikastaroan parte hartzeko. Podcast baterako ideiarene bat baduzu, edo besterik gabe, jolaserako eta bere burua probatzeko gogoia duenarentzat irekia.



Urriak 29, azaroak 12 eta 26
eta abenduak 12 eta 17



Euskara



Ostegunak, 17:30-19:30
Larunbata, 10:00-14:00



16,5€ Azpeitian erroladatutakoentzat
20€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat



Eneritz Arzallus

JABETZE ESKOLETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	O BAI	O EZ
---	-------	------

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Nola?	O Whatsapp-ez	O Korreo elektronikoz	O Telegramez
-------	---------------	-----------------------	--------------

(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)

Eguna: 2026ko	ren	(e)an	Sinadura:
---------------	-----	-------	-----------

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:

☐ 1. Twerk ("Booty dance") ikastaroa	☐ 4. Irrintzi tailerra: irrintziaren gerturapen sonora
☐ 2. Etxeko konponketa tailerra	☐ 5. Drag tailerra: genero adierazpen artistikora hurbilketa
☐ 3. Motxila: Daramagunari begiratu, naizena ulertu eta zer nahi dudan aukeratzeko bidaia	☐ 6. Podcast Feminista

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Zein motatakoa?

Hurtzaindegi zerbitzurik behar duzu?	O BAI	O EZ
--------------------------------------	-------	------

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

BOTEREGABETZE ESKOLAK

ZER DIRA BOTEREGABETZE ESKOLAK?

Gizonentzako boteregabetze- eskolak genero-rol tradizionalei aurre egiteko guneak dira. Tailerrak eta eztabaidak eskaintzen dituzte, gizonak gizartean duten eginkizunari buruz hausnar dezaten eta genero-desberdintasunak zein indarkeria matxistak betikotzen dituzten portaerak desikas ditzaten. Gizon kontzienteagoak sortzea bilatzen dute, harreman parekideak eta indarkeriarik gabekoak sustatuz.

IZEN EMATEA

Izena emateko epea: Irailaren 21etik urriaren 2ra arte
Non izena eman?

- Azpeitiko Emakumeen Txokoa, zuzenean:
Goiko Kale 12, behea
- Telefono bidez: 943 15 70 55
- Whatsapp-ez edo Telegram bidez: 688 751 000
- Posta elektronikoz: emakumetxokoa@azpeitia.eus

Izena emateko

Izen-emate orria bete behar da. Orria eskuratzeko Emakumeen Txokoa eskatu edo eskuorriko fitxa bete eta entregatu.

IZENA EMATEKO OHARRAK

- 1. Plazak mugatuak dira,** eta ikastaroetan zein tailerretan lehentasuna izango dute:
 - Azpeitian erroldatutakoek
 - Azpeitian erroldatuta egon eta ikastaro bera aldeztu aurretik egin ez dutenek (ikastaroaren jarraipena den kasuetan izan ezik)
 - Azpeitian erroldatuta daudenean eta Jabetze Eskolako eta Emakumeen Txokoko ikastaroetan aurrez parte hartu ez dutenek.
- 2. Taldeak antolatzeke,** behar izanez gero, **zozketa** egingo da izena eman duten pertsona guztien artean. Gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea osatzeko.
3. Behin taldea osatuta, ordainketa egin beharko da, eta dirua itzuliko da, soilik, justifikatutako ez-bertaratzea denean.
4. Haurtzaindegi-zerbitzua eskainiko da gutxienezko 3 umeko taldea osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, aurrez, izena ematerakoan adierazi.

1. GATAZKAK, KORAPILOAK ETA BELDURRAK FEMINISMOTIK

Garrantzitsua da gai zehatzen inguruan sortzen diren zalantza, beldur eta gatazkei buruz hitz egitea, horiek mahaigaineratu eta termino mobilizatzaileetan kokatzea. Horrela, korapiloak aldaketarako aukera eta gako gisa ulertuko ditugu, ikuspegi zigortzaileak albo batera utzita.



Urriak 21



Euskara



18:00-20:00



Doan



Iñi Etxezarreta (Eihera
Kooperatibako kidea)

2. DESIRA, EROTIKA ETA HETEROARAUA

Lehentasun eta desirak gurutzatu egiten dituzte pertsonen espektatiba eta munduan egoteko moduak. Gai tabuagoa izan denez, ordea, ez da nahikoa hitz egiten horiek heteroarauaren eraikuntzan eta botere- harremanetan duten pisuaz eta, horregatik, horien inguruak hitz egiten hasi ahal izateko espazioa izango da.



Azaroak 18



Euskara



18:00-20:00



Doan



Iñi Etxezarreta (Eihera
Kooperatibako kidea)

BOTEREGABETZE ESKOLETAN

IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	O BAI	O EZ
---	-------	------

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Nola?	O Whatsapp-ez	O Korreo elektronikoz	O Telegramez
(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)			

Eguna: 2026ko	ren	(e)an	Sinadura:
---------------	-----	-------	-----------

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:
☐ 1. Gatazkak, korapiloak eta beldurrak feminismotik
☐ 2. Desira, erotika eta heteroaraia

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Zein motatakoa?

Hautzaindegi zerbitzurik behar duzu?	O BAI	O EZ
--------------------------------------	-------	------

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabekuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titullarrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

EMAKUMEENTZAKO IKASTARO IRAUNKORRAK



1. IRAKURRI ETA AHALDUNDU

Ainhoa Aldazabal Gallastegui naiz. Euskal filologiako ikasketak egin nituen eta paradoxikoki irakurtzeari utzi nion. Skolastika ezagutu nuenean berreskuratu nuen irakurtzeko gogoia, plazera eta zaletasuna. Bi pasioaren uztarketak eman dit ofizioa: literaturak eta feminismoak.

Ikasturte honetan hiru saioetara liburuen idazleak etorriko dira. Bisita hauek aukera paregabea eskainiko dute egileekin solasean aritzeko eta haien lanetan sakontzeko, horrela gure esperientzia literarioa aberastuz eta irakurzaletasuna sustatuz.



Urriak 15, azaroak 19,
abenduak 17, urtarrilak 21,
otsailak 18, martxoak 18,
apirilak 29, maiatzak 20,
ekainak 17



Ostegunak, 17:30- 19:30



Ainhoa Aldazabal Gallastegui



Euskara



22€ Azpeitian erroldatutakoentzat
27€ Azpeitian erroldatu gabekoentzat

*Izena emandakoan harreratik pasatu liburura jasotzera.

2. EMPALABRAMIENTO

Gaztelerari eta euskarari buruzko prestakuntza-tailerra da, emakumeen ahalduntzerako trebetasun pertsonal eta funtzionalak lortzera bideratuta dagoena. Hizkuntza horien alfabetatzean eta oinarritzko mailan zentratuta egon arren, etengabe egokitzen da taldearen beharretara eta mailetara, eta, horrela, hainbat gai lantzen ditu. Gainera, taldean lan egiteko eta elkarrekin ikasteko tresnak eskaintzen dira.



Astelehenetan,
asteazkenetan eta
ostiraletan



Nerea Del Campo



Euskaraz eta gazteleraz



10:00-12:00



Doakoa

*Soilik bi aldiz zabalduko da izen-ematea ikasturtean zehar. Lehenengoa oraingoa eta, hurrengoa, urtarrilean.

IKASTARO IRAUNKORRETAN IZENA EMATEKO FITXA

Izena	Abizenak
Jaioteguna	NAN
Helbidea	
Herria	P.K.
Posta elektronikoa	Tlf.

Aurrez parte hartu al duzu Jabetze Eskoletan?	O BAI	O EZ
---	-------	------

Emakumeen Txokoko ekintzen berri izan nahi duzu?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Nola?	O Whatsapp-ez	O Korreo elektronikoz	O Telegramenez
(Ekintzen berri Whatsapp-ez izateko, bidaliko dizugun lehen mezuko telefono zenbakia zure agendan kontaktu bezala gorde beharko duzu, eskerrik asko)			

Eguna: 2026ko	ren	(e)an	Sinadura:
---------------	-----	-------	-----------

Markatu X batekin izena eman nahi duzun ikastaro edo ikastaroetan:
☐ 1. Irakurri eta ahaldundu
☐ 2. Empalabramiento

Eragozpen fisikorik baduzu? Funtzionalitate anitzeko gairik?	O BAI	O EZ
--	-------	------

Zein motatakoa?

Hautzaindegia zerbitzurik behar duzu?	O BAI	O EZ
---------------------------------------	-------	------

Lege oharra: Hemen jasotzen diren datuak fitxategi batean sartuko dira, gero Jabetze Eskolako Ebaluazio Programan aztertzeko. Azpeitiko Udalak bermatzen du datuak ez zaizkiola Jabetzuntza Eskolako ez den inori emango. Datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta parekatzeko eskubideak erabili ditzake haien titularrak, datuak babesteko legerian ezarritako terminoetan. Era berean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko eskubidea atzera bota dezake edozein unetan, atzerako eraginik gabe, Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko Europar erregelamenduak ezarritakoa dela bide.

Harremanetarako: emakumetxokoa@azpeitia.eus | Goiko kale, 12. | Tlf.: 943 15 70 55 | 688 751 000



PARTE-HARTZERA KOA, SENTSIBILIZAZIO RAKO ETA INTEGRAZIO RAKO EKIMENAK



**15 URTE
ZUEKIN**

*"Borrokatua
izan da,
ez oparitua"*



ZER DIRA PARTE-HARTZE, SENTSIBILIZAZIO ETA INTEGRAZIORAKO EKIMENAK?

Parekidetasuna bultzatzeko askotariko ekintzak antolatzen ditugu; hitzaldiak, kultura-jarduerak, tailerrak, zinema-emanaldiak... Publiko zabalar, pertsona orori irekita dauden ekimenak dira (hala aipatzen ez bada, behintzat).

2026-2027 ikasturtean, Emakumeen Txokoaren 15. urteurrena dela eta, antolatutako ekintza gehienak ospakizun horren inguruan egingo dira. Urte honek aukera emango digu egindako ibilbidea balioesteko, memoria partekatzeko eta etorkizunera begira jartzeko. Emakumeen Txokoa borrokatua izan baita, ez oparitua.

EKIMENAK



GIMNASIORAKO LEHEN URRATSAK

Gimnasia hurbilketa gidatua, monitore baten laguntzarekin, makinaren erabilera eta espazioaren funtzionamendua modu seguruan ezagutzeko. Esperientzia honek konfiantza eta autonomia indartu nahi ditu, emakumeek gimnasioko espazioa segurtasunez, presentziaz eta askatasunez okupatu eta bere egin dezaten sustatuz.

Ekintza hau soilik emakumeei bideratuta egongo da eta bi egunen artean ahalko dute aukeratu:

- Urriak 9, ostirala, 9:00etatik 10:30etara
- Urriak 26, astelehena, 18:00etatik 19:30etara.

Formatzailea: Kiroldegiko bideratzailea

Hizkuntza: Euskara

Tokia: Estalitako igerilekuko fitness eta muskulazio gelan

Prezioa: Doan

*OHARRA: Soilik emakumeentzat. Aldez aurretik izena eman beharko da.

IRAILAK 28, ASTELEHENA

AZPEITIKO EMAKUMEEN TXOKOKO ATE IREKIAK

Bisita Emakumeen Txokoko gun e ezberdinak ezagutuz hasiko dugu, eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak aurkeztuko ditugu. Era berean, izen-ematea zabalik egongo dela aprobetxatuta, martxan dagoen eskaintzaren informazioa eskainiko da. Ate irekiak luntx batekin amaituko dugu, bidean zehar sortutako galderak erantzun eta elkarrekin giro atseginean egoteko.

Ordutegia: 18:30

Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Hizkuntza: Euskara

URRIAK 15, OSTEKUNA

MIREN ODRIUZOLA LITERATUR BEKAREN AURKEZPENA ETA "LAURA ESATEN ZIOTEN" LIBURUAREN INGURUKO SOLASALDIA

"Miren Odriozola Literatur Beka aurkeztuko da, ezkutuan egon diren Azpeitiko emakumeen eta LGBTIQ+ pertsonen historiak argitara ateratzeko sortu dena Ondoren, Ainhua Aldazabalen eta Leire Ibargurenen eskutik, "Laura esaten zioten" liburuari buruzko solasaldia egongo da, Miren Odriozola, liburuaren protagonistarekin batera."

Ordutegia: 18:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

Hizkuntza: Euskara

AZAROAK 18, ASTEAKZKENA

MEMORIA ETA ERRESISTENTZIA FEMINISTAREN GENEALOGIA AZPEITIAN

Ekimen honen helburua da Azpeitiko mugimendu feministaren ibilbide historikoa kolektiboki eraikitzea, emakumeen belaunaldi desberdinen esperientziak eta memoriak berreskuratuz eta partekatuz.

Dinamizazioa: Harago aholkularitza

Ordutegia: 17:30


Lekua: Azpeitiko Emakumeen Txokoa

Hizkuntza: Euskara



**ZERBITZU ETA
BALIABIDE
FEMINISTAK**





ZER DIRA ZERBITZU ETA BALIABIDE FEMINISTAK?

Genero berdintasuna bermatzeko eta parekidetasunaren balioekin bat egiten duten zerbitzu ugari ditugu inguruan. Azpeitiko parekidetasun arlotik bereziki, hainbat zerbitzu kudeatzen dira eta horien inguruko informazio eta sarbidea eskaintzen da Emakumeen Txokotik. Zerbitzuak, KONFIDENTZIALAK, PROFESIONALAK ETA DOAKOAK dira.

EMAKUMEEN TXOKOKO BALIABIDE OROKORRAK

HARRERA ETA INFORMAZIOA

Emakumeei zuzendutako zerbitzuei buruzko informazioa. Indarkeria matxista kasuetarako zerbitzuen informazioa. Protokolo eta jarraibideen aholkularitza. Herriko parekidetasunerako baliabideen informazioa. Izen emateak. Gela eskaerak. Hitzorduek...

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 19:00etara eta ostiralak 9:00etatik 13:00etara

LIBURUTEGI FEMINISTA

Liburu kontsultak
Liburu maileguak
Ikus entzunezkoen maileguak

*Maileguak harreran egin daitezke

ERREMINTA MAILEGUA

Etxeko lan txikietarako
erreminta maileguak.

*Maileguak harreran egin daitezke



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Prozesu judizialen inguruko informazioa eta hauen inguruko aholkularitza feminista eskaintzen duen zerbitzua da. Emakumeek beraien prozesuetan autonomia eta ahalduntzea garatzeko tresnak eskaintzen dira. Askotariko gaiak jorratzen dira.



LARDAXKA: SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA

Sexuaren, generoaren eta sexuen arteko harremanen inguruko ezinegonak, zalantzak eta zailtasunak argitzeko zerbitzua da. Herritar orori zuzenduta dago eta banaka, bikotean zein kolektiboan erantzungo da: aurrez aurre, telefonoz edo era telematikoan.



AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO FEMINISTA


LGTBIQ+ pertsonen eta emakumeen bideratutako aholkularitza psikologiko espezializatua da. Zerbitzua ikuspegi feministatik egiten da, ahalduntze indibidual zein kolektiboa xede izanik.

Alde batetik, LGTBIQ+ pertsonak beraien sexu-genero identitateagatik edo orientazioagatik bizi (izan) dituzten gatazkak eta horiek sortutako ondorezak lantzeko aukera eskaintzen da. Bestetik, emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunek sortzen dituzten genero ondorezak lantzeko gunea ere bada.

*Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen zuzendua.



- **Aholkularitza guztietarako, aurrez, hitzordua eskatu behar da Emakumeen Txokoan edo 688 751 000 telefonora deituta.**
- **Online bidezko kontsulta egiteko aukera.**



INDARKERIA MATXISTA KASUEI BIDEAGUNTZA

Egungo jendartean emakumeok emakume izateagatik eta LGTBQ+ pertsonak haien sexu identitateagatik edota orientazioagatik indarkeria matxista pairatzen dugula jakina da. Askotariko indarkeria mota jaso ditzakegu, besteak beste, genero-indarkeria, familia barruko indarkeria sexista, sexu-indarkeria edota jazarpen sexuala. Indarkeriak forma asko har ditzake eta era ezberdinetan eman ohi da bortizkeria hori: psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa, soziala...


Indarkeria mota eta forma horiei guztiei aurre egin badiozu noizbait, aurre egiten ari bazara edo egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baduzu, babesleku emozional eta sozialerako espazioa dugu Emakumeen Txokoan. Maila indibidualetik harago, kolektiboan elkar zaintzeko espazioa, alegia.

Informazio gehiago beharko bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan.



NOLA ESKANEATU QR KODEA?

¿CÓMO ESCANEAR
UN CÓDIGO QR?



Mugikorreko kamararekin eskaneatu

Escanear con
cámara de móvil

Link bat azalduko zaizu, egin klik bertan

Aparecerá un link,
haz clic en él

Informaziora iritsiko zara

Llegarás a la
información

IPARRIZAR: INDARKERIA MATXISTA BIZI DUTENENTZAKO ARRETA INTEGRALA ETA DIZIPLINARTEKOA



NORI DAGO ZUZENDUTA?

Azpeitian bizi diren indarkeria matxista jasaten edo iraganean pairatu duten **emakumeak eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak** artatzen dira, haiek hala nahi badute. **Egoera horretan dagoen norbait ezagutuz gero jarri gurekin harremanetan informazio guztia eskuratzeko.** Sarbidea irekia eta baldintzarik gabekoa da. Zalantzarik izanez gero, harremanetan jarri eta erantzungo dizugu.

ZERTAN DATZA ZERBITZUA?

Indarkeria matxistaren aurrean erantzun integrala eta diziplinar-tekoa eskaintzen duen udal zerbitzua da. Horren bitartez, **erdigunean kokatzen dira indarkeria matxistari aurre egiten ari direnen beharrak eta ongizatea, berbiktimizazioa saihestuz eta arreta eraginkorra zein erreparatzailea** bermatuz.

SARBIDEAK

Iparrizar, hiru sarbide dituen zerbitzua da: **Gizarte Zerbitzuak, Emakumeen Txokoa eta Udaltzaingoa.** Beraz, pertsonak erosoan, hurbilen edo seguruen sentitzen duen espaziora joateko aukera izango du. Zerbitzura sartzeko **ez da beharrezkoa izango salaketa** jarri izana, eta, halaber, zerbitzuan sartzeko ez du esan nahi salaketa jarriko denik.

ESKANTZEN DIREN ZERBITZUAK

- Salaketa jartzea
- Bidelaguntza
- Aholkularitza psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa
- Laguntza ekonomikoa
- Sexualitate, genero eta bikote aholkularitza
- Lanketa kolektiboak
- (...)